

Les vers ont été composés par Beñat SOULÉ, dans la facture classique du « zortziko handia » : vers de 18 pieds avec deux césures : 5+5+8) ; de nombreux airs permettent de les chanter.
La traduction en français est approximative.

(Dimanche 17 Août 2025 Agorrilaren 17a.)

DOMINIQUE ERRECART APEZA ERRETRETARA

- 1- Larresoroko herriak zuen izan egun arraroa
Liliana etxe maitean alegeratu giroa
Sortzean duzu goxoki entzun amaren mintzo beroa
Bizi guzian zuri eskainiz amodio oparora.
- 2- Gazterik duzu Jaunaren deia aditua zure baitan
Baia emanik lanari lotu ikastetxe horietan,
Seminario ttiki ta handi, Pariseko hiri hartan,
Kooperante ere egona Tahitiko ugartetan.
- 3- Hogoï bat urte egona zira Donibane Lohizunen,
Bikario ta erretor gisa zinuela ainitz kemen.
Arrantzariet ote zuketan apez hoberik izanen?
Zure distira maitatu dute hori dugu segurtamen.
- 4- Hazparneratu zirelarikan zer parropia gotorra,
Hameka herri eta eliza, kaperak lerro ederra.
Denetan duzu meza emana luzea edo laburra
Ez du Jainkoak bere lanera deitua gizon alferra.
- 5- Bizi osoan fedean kartsu lagundu denen arimak
Hamar bat urtez Euskal herrian kudeatuz katiximak,
Pedagogirik hoberenean dorpeak diren lan zamak
Ez zaitu iñoiz ez ahantziko geroan zeruko amak.
- 6- Bi hizkuntzetan ari beharra hola da gaurko mundua
Zuk euskarari halere duzu handi atxikimendua,
Jainkoa lagun euskara baita zuk daukazun zimendua,
Gaur izan zaite euskaldun oroz handizki zoriondua.
- 7- Baratzegintzan, sukaldaritzan beti baitirade lanak,
Zure lagunak gomitatzean itxura zuen mahainak
Jateko onak, dener eskainiz, zure eskutik eginak.
Eskertzeko da zeruko aitak eman holako dohainak.
- 8- Astelen oroz Larresorora zirela gogotik biltzen,
Sortherri batek utzi aztarna ez baita sekula galtzen
Anpolania zure zai dago, ongi duzu ezagutzen.
Gerta daiteke gu ere harat bisitan etor gaitezten.
- 9- Deneri baita noizbait etortzen lana uzteko orena,
Erretreta bat duzu hartuko ahal bezain goxoena.
Frantses Dardan-en parropi huntaz atxik oroitzapen
ona,
Hartu gu ganik bihotz barneko eskerrikan beroena.

Beñat SOULÉ

POUR LE DÉPART À LA RETRAIRE
DE L'ABBÉ DOMINIQUE ERRECART

- 1- Jour remarquable au village de Larressore,
Ambiance joyeuse dans la maison Liliana,
À votre naissance, vous avez entendu la douce voix de votre
mère,
l'amour généreux qu'elle vous a donné durant toute la vie.
- 2- Dès votre jeunesse, vous avez entendu l'appel du Seigneur,
Après votre « oui », vous avez suivi des études:
au Petit, puis au Grand séminaire, puis à Paris,
vous avez aussi été coopérant à Tahiti.
- 3- Vous êtes resté une vingtaine d'années à Saint Jean de Luz,
Vicaire puis Curé, vous avez montré beaucoup d'ardeur,
Les pêcheurs pouvaient-ils avoir un meilleur prêtre ?
Ils ont aimé votre rayonnement ; c'est une certitude.
- 4- Puis vous êtes arrivé à Hasparren : quelle grosse paroisse !
Onze villages et églises, ribambelle de chapelles.
Vous avez célébré des messes partout, longues ou courtes,
Dieu n'a pas appelé au travail un homme paresseux !
- 5- Toute votre vie, vous avez accompagné les âmes dans la foi,
Pendant une dizaine d'années, vous avez organisé le
catéchisme au Pays Basque
Dans la meilleure des pédagogies, une charge de travail
difficile
Notre mère du ciel ne vous oubliera jamais.
- 6- Il faut travailler dans les deux langues – c'est ainsi dans le
monde d'aujourd'hui –
Vous avez cependant un grand attachement à l'euskara.
Parce qu'avec l'aide du Seigneur vous avez l'euskara comme
fondation,
aujourd'hui soyez loué par tous les basques.
- 7- Au jardin potager, à la cuisine, il y a toujours du travail à
faire
Votre table avait belle allure devant vos invités,
de bons mets, offerts à tous, préparés de vos mains.
Il faut remercier le Seigneur qui vous a donné de tels dons.
- 8- Tous les lundis, vous vous rendez de bon cœur à Larressore
car on n'oublie jamais l'empreinte laissée par le village natal.
La maison « Anpolania » vous attend, vous la connaissez bien.
Il se pourrait que nous aussi, nous nous y rendions pour vous
rendre visite.
- 9- Comme il arrive à tous, un jour, de devoir arrêter le travail
vous prendrez votre retraite, la plus douce possible.
Gardez un bon souvenir de cette paroisse François d'Ardan.
Et acceptez, de notre part, nos remerciements les plus
chaleureux.